

ENPLEGUA. Orain urte biko eta igazko ikastaroetan, bi mila pertsona inguru egon ziran

la mila laguni eskainiko deutsiez itsasontzigintza inguruko ikastaroak

Aurtengo ikasleen artetik 210 dagoz beharrik barik, eta, ikastaroak amaitzen dabezanean, 191k beharra aurkitzea itxaroten dabe

Onintza Enbeita

Bizkaiko Foru Aldundiko Lan eta Hezkuntza Sailak hainbat ikastaro antolatu zituan 2001 eta 2002an itsasontzigintza laguntzaile izateko. Biak batuta, ia bi mila lagun egon ziren sektorearen ganeko ikastaroetan.

2001ean eta 2002an beharrik barik egozan 417 joan ziran ikastaroetara, eta horreetatik 379k beharra lortu eben. Aurtun, 936 ikasle sartuko dira ikastaroetan, eta 210 dira beharrik barik dagozanak; 27 andra eta 183 gizon. Aldundiak esperantzea dauka, ikastaroa amaitzen danean horreetatik % 91ri beharra eskaini ahal izateko.

Antza danez, Bizkaiko ontziorlan behar egiteko profesionalak falta zirala ohartu ziran, azpikontratengana behargin eske joaneran. Orduan, Aldundiak ikastarook sortu ebazan, eta orain arte arrakasta handia euki dabe.

Programeari esker, hainbat lagunek ikasi ditue ontzioletan behar egiteko teknika barriak, eta produktu barriakaz zelan behar egin. Aldundiaren esanetan, itsasontzigintza aldaketa saioan dago egun. Era berean, sektorearen inguru ekonomiko eta kulturala be aldatuz doaz.

Aldundiak esan dauenez, ikastaro horreen helburuak honexee dira: beharginak sekto-

rerako gertetea, ontzigitzea zabaltzea beharrik barik dagozanei eta ontzioletan dabilzan beharginek jardurearen ganeko ezagutza nahikoa daukiela bermatzea.

Hainbat eta hainbat eduki, ikastaroen barruan

Ontzigitzea sektore zabala danez, ikastaroen zerrendea be lueza da. Zama altzetako plataformak eta garraiorako ikastaroa izango da oinarrizkoena. Horregaz batera, ontzioletan hain erabiliak diren garabiak erabiltzeko ikastaroa be zabalduko dau Aldundiak.

Soldatzearen ganean, ikastaro bi eskainiko dabez. Bata GMAW motako soldaketea ikasteko, eta bestea, TIG erakoa menperatzeko. Sopletea erabiltzeko be garrantzia handia dauka ontzigitzan. Izan be, beroaren arabera zuzentzailea sano erabilten da sektorean. Ha-

HELBURUAK

Ontzigitzea zabaltzea beharrik barik dagozanei eta sektorean dabilzan beharginek jardurea ezagutzen dabela jakitea

landaze, horren ganeko ikastaro berezia egongo da.

Beharreko istripuei aurre hartzeko teknikari buruzko ikastaroak be eskainiko dabez: oinarrizko mailea, mailla ertaina eta goi mailea.

Itsasontzigintza behararen ganeko informazioan eta sentibilizazioan teknikari izateko aukerea be egongo da. Ontziak zelan isolatu be erakutsiko dabe. Horreekaz batera, sektoreagaz oso lotuta egon ez arren, erabilgarriak diran informatika ikastaroak antolatu ditue.

BARAKALDO. Babes ofizialeko berrogei etxe salduko ditue, eta beste 40 errentan emoteko asmoa daukie

Udalak eta Eusko Jaurlaritzak 80 etxebizitza sozial eregiteko akordioa sinatu dabe



JON HERNANDEZ / ARGAZKI PRESS
Javier Madrazo eta Carlos Pera, akordioa sinatu eben momentuan.

Onintza Enbeita

Barakaldoko alkate Carlos Pera eta Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailburu Javier Madrazok, Lutzana-Munoan 80 etxebizitza eregiteko akordioa sinatu eben. Horreetatik 40 babes ofizialeko etxebizitzak izango dira, eta lurra eskubideak

izango ditue. Beste 40ak etxebizitza sozialak izango dira, eta errentan emongo ditue.

Madrazok azaldu ebanez, «gazteek arazo handiak daukie merkato librean etxebizitza erosteko, baina ez hori bakarrik, askok babes ofizialekoak erosteko be arazoak daukie». Hori dala eta, 150 eta 180 euro arte-

ko errentea jarriko deusie 40 etxebizitza sozialei.

Peraren esanetan, «industria galtzeak Barakaldon itxi dauen gauza on bakarra, milioi bat metro koadroko lurra izan da». Azaldu ebanez, Udalak hiru helburugaz erosi ebazan lurrok: «Jarduera ekonomiko barriei urtenbidea emoteko, uriari leku

berdeak gehitzeko eta bertokozentzat, kalidadeko etxebizitza bermatzeko».

Udalak emon dauz pausoak lehen lur industrial izandakotan etxebizitzak eregi ahal izateko. Orain, baina, etxebizitzaren eregitza arintzeko Eusko Jaurlaritzari saldu deusoz lurrok etxebizitzak eregi daiazan. Alkateak azaldu ebanez, «Barakaldon etxeak eregiteko emoten diran lizentzien %45 babes ofizialeko etxeak eregiteko emoten da». Horrek merkato libreko etxebizitzaren salneurriak jaisten lagunduko dauela esan eban alkateak.

Madrazoren berbetan, «etxebizitza arazo handia da, baina alkarlanean konpondu behar da. Eskaria beteteko konpromisoa hartu dogu, eta horren ondorioa da gaurko ituna». Lutzana-Munoako etxebizitzak 2005erako amaituko dabez, eta zozketea 2004an egingo dabe.

Barakaldon erroldatutakoek lehentasuna eukiko dabe 20 etxebizitzetan, eta ingurukoek, beste 20etan. Errentan emoteko dagozanetan, etxea galdu edo bota eta barri bila dabilzanek eukiko dabe lehentasuna. Madrazoren arabera, 7.500 lagun dagoz Barakaldon Etxebizitza programan izena emonda, eta «apurka danari emon behar jake aukerea».

LABURAREN

GARRAIOA

Zorrotzaurreako autobusa lehengo moduan gura dabe

Bilboko Udalak aldaketak egin ebazan Atxuritik Zorrotzaurreako ibilbidea daukan autobusean. Lehengo autobusa goizeko 6:15era atzeratu eban, eta geltokia Atxuritik Deustura eroan. UGTk Zorrotzaurrean behar egiten daben 400 beharginen sindurak batu dauz aldaketon kontra. Izan be, beharleku asko dagoz Zorrotzaurrean, eta lagun asko 6:00etan sartzen dira beharrera. Beharginek lehengo moduan mantendu gura dabe autobus zerbitzua.

BARAKALDO

Sindikatuak ez dabe ondo hartu Contenurrek beharginak kanporatzea

Barakaldoko Udalak Contenur izeneko Madrilgo enpresa kontratau dau garbiketaz eta umeak olgetako lekuak arduratzeko. Konbenioak hori ipini arren, enpresa horrek ez dauz mantendu orain arte horretan ibili diran beharginak. Sindikatuak hasarre dagoz erabagi horregaz, eta ELA, LAB eta USO udaletxe aurrean batu ziran atzo protesta egiteko. Izan be, salatu ebanez, alkateak ukatu egin eban puntu hori udalbatzan eztabaidatzea.

KULTUREA

Zorrotzako eta Iralako AEK-k txangoa gertatu dabe Euskal Txokoagaz

Zorrotzako eta Iralako AEK-k eta Zorrotzako Euskal Txokoak Izabarako txangoa antolatu dabe. Izena emoten dabenek 20 euro ordaindu beharko dabez, zezeilaren 21etik 23rako astegoienean Izaban pasetearen truke. Hara heldu eta gero, eskiatiko zein mendian ibiltzeko aukerea eukiko dabe doazenean. Izena zezeilaren bostaren baino lehen emon beharko da AEK-ko Irala edo Zorrotzako bulegoan.

Santa Eskean urteteko entseguak egiten dabilz Asapalako lagunak

Asapala Begoña eta Santutxu euskera taldeak Santa Eskean urtengo dau Santa Ageda bezperan. Gaur eta bihar egingo ditue entseguak Santutxu AEKn, iluntzeko 20:00etan. Zezeilaren 2an, goizeko 10:00etan batuko dira Garaizarren, Arbolantzara joateko kantetan.